



**eskohitza**  
*danona da*

# eskohitza 2013

Eskoriatzako Udalaren aurrekontuak herritarren  
parte-hartzearekin lantzeko proiektua



## AURKIBIDEA

1.	Testuingurua	3.
2.	Helburuak	3.
3.	Ekimenen sekuentzia	4.
4.	Sektorekako bilerak eta herritarren ekarpenak	8.
5.	Hirigintzako proiektuak eta herritarren iritziak	18.
6.	Udal langileen ekarpena	20.
7.	Balorazioa	23.



## 1. TESTUINGURUA

Eskohitza parte-hartze prozesua 2011ko urrian aurkeztu eta martxan jarri zen, Eskoriatzako Udalak eskoriatzarren iritzi, ideia eta iradokizunak jasotzeko helburuarekin. 2011 bukaeran eta 2012 hasieran aurrera eramandako bileren ondoren segida eman nahian, Eskoriatzako Udalak 2013ra begirako udal kudeaketa plana eta aurrekontuak herritarrekin batera lantzeko asmoarekin 2012 bukaeran eta 2013 hasieran Eskohitza2013 proiektua eraman du aurrera.



## 2. HELBURUAK

Eskohitza2013 parte hartze proiektuaren xede orokorra hau izan da:

**2013ko udal aurrekontuen lanketa herritarren iritzia jasoz aberastea**

Eskohitza2013ren barne udaleko hainbat sailek sustatutako parte-hartze bilerek eta bestelako ekimenek bestelako helburu hauek ere izan dituzte:

- herritarrei 2012ko kudeaketa planaren deskargua egitea eta Eskohitza2012ko eskaeren betetze mailaren berri ematea
- 2013ko kudeaketa planaren zirriborroa eta ekintzen proposamenak aurkeztea, herritarren ideiak jasotzea eta herritarrekin batera lehentasunak jartzea
- 2013ko kudeaketa plan osoa herritarrei aurkeztea

Era berean, Eskohitza2013 ekimenak udal barruan zein herritarren artean **parte-hartze kultura hedatzeko helburu orokorra** ere izan du eta 2012an hasitako bideari segida eman dio.



### 3. EKIMENEN SEKUENTZIA

Eskohitza2013 proiektua 2012ko urrian eta azaroan zehar diseinatu zen, Eskoriatzako Udaleko Parte-hartze eta Komunikazio Batzordearen ekimenez.

2012ko abenduan zehar herritarrekin egindako bilera sektorialak izan dira proiektuaren ardatz baina izan dira ekimen gehiago eta hemen azpian daude azalduta.

#### 3.1. Komunikazioa

Eskohitza2012an erabilitako irudiak eta estetika bera baliatu dira helburu hauek zituen komunikazio planean:

#### KOMUNIKAZIO HELBURUAK ETA EKIMENAK

- **Eragile eta elkarteko ordezkariak bilerara erakartzeko** ekimenak: prentsa oharra, web albistea eta udalaren sare sozialetatikoa deiak, telefonozko eta e-mailezko dei pertsonalak.
- **Bileretako edukiak gizarteratzeko** ekimenak: erregistratu bilerara bertaratutakoen aniztasuna [jatorria, auzoa, sexua, adina...], eskuratu argazkiak, idatzi bilerako kronikak, sortu udal webgunean eta sare sozialetan albistea, eskatu Goienari albistek eta egin urtarilean herritarrentzako komunikazio ekimen orokorra (parte-hartzea baloratzeko, behin betiko KP2013 ezagutarazteko...)





### 3.2. Sektorekako bilerak

Eskoriatzako Udalaren 2013ko aurrekontuak lantzeko herritarrekin hainbat bilera egin dira, hainbat udal sailek sustatutakoak. Hauek izan dira bilerokin ukitutako sektoreak:

#### Bileretan ukitutako arloak

- Gizarte ongizatea
- Kirola
- Turismoa eta ingurumena
- Kultura, euskara, gazteria eta hezkuntza




4 multzo horietako bakoitzarekin bilera ireki bat egin da Eskoriatzako Ibarraundi Museoa eta hainbat komunikazio euskarri eta kanalekin bideratutako bilera dei orokorrez gain, sektore bakoitzean erreferentzia diren herritarrei dei berezia egin zaie bileretara parte-hartzeko.

Bilerotan eduki hauek jorratu ziren:

- Udal aurrekontuen inguruko testuingurua eta mugak azaldu.
- 2012ko kudeaketa planaren deskargua egin.
- Eskohitza2012tik ateratako eskaeren betetze maila jakinarazi.
- 2013rako kudeaketa planaren eta aurrekontuaren proposamena azaldu.
- 2013ko kudeaketa plan eta aurrekonturako ekarpenak jaso eta lehentasunak ezarri.
- Bileraren balorazioa egin.



Bilerak kontsultiboak izan dira eta hala adierazi zaie bertaratuei hasieratik.




Bilerak gidatu eta dinamizatzeko erabilitako metodologiari dagokionez, hauek dira erabilitako teknikak eta euskarriak: bertaratuen jatorri geografikoa jasotzeko mapa, pantaila bidezko aurkezpenak, talde txikietan brainstorming ariketa eta post-it-ak, lehentasunak jartzeko matrizea eta balorazioak egiteko dianak.

### 3.3. Hirigintzako erakusketa, web-inkesta eta botazioa

Sektorekako bilerak egitearekin batera Eskoriatzako Ibarraundi Museoa Hirigintza eta Obrak udal sailak 2013rako balizko hirigintza proiektuen inguruko erakusketa antolatu du. Erakusketa horretan 2013an zehar egiteko modukoak diren 13 hirigintza proiektuak irudi eta testu bidez azaldu zituzten; lanen aurreikusitako kostuak ere jasotzen zituzten azalpen horiek.



Erakusketan bertan herritarrei aukera eman zitzaien 13 proiektu horien artean lehentasunak jar zitzaten. Boto paperak eta boto-kutxa jarri ziren herritarren lehentasunen berri jasotzeko.



Boto kopuru txikia jaso zela-eta, gerora Eskoriatzako Udalaren webgune korporatiboan botoa web bidez emateko aukera ere eman zaie 2013ko urtarrilan zehar.

### 3.4. Udal langileen arteko bilera

Herritarrentzako antolatutako parte-hartze bileren testuinguruan, udal langileek ere udal funtzionamendua baloratzeko eta hobetzeko helburuarekin langile guztiei irekitako bilera egin zuten, aurrez aipatutako sektorekako bileretan erabilitako metodologia berarekin.






#### 4. SEKTOREKAKO BILERAK ETA HERRITARREN EKARPENAK


##### 4.1. Herritarrentzako bileretako parte-hartzea auzoka, sexuka eta adineka

Sektorekako bileretan guztira 41 herritarrek hartu dute parte. Horietatik gehienak Eskoriatza herrigunekoak izan dira; elizateetako biztanleen parte-hartzea txikia izan da.

Parte-hartzaileen auzokako banaketa




Parte-hartzaileen adinaren arabeko banaketa








### Parte-hartzaileen sexuaren araberako banaketa



### Parte-hartzaileen sektorekako banaketa





## 4.2. Ekarpenak, sektoreka

### 4.2.1. Kultura, Euskara, Gazteria, Hezkuntza, Biblioteka

Hauek dira sektore honetako aurrekontuak aztertzeraz joan ziren herritarrek udal teknikariek aurkeztutako aurrekontu proposamenaren aurrean eman zuten iritzia:

Ondo egindakoak	Hobetzekoak
<b>GAZTERIA:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaztelekua</li> <li>- Gaztelekuari babes ematen jarraitu</li> <li>- Gabonetako parkea</li> <li>- Skate Parkeak erabilera handia</li> <li>- Gazte sormenerako diru-laguntzak</li> </ul>	<b>GAZTERIA:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Asteaz zehar gazteak egonean egoteko lekuak egotea</li> <li>- Ludoteka zerbitzua</li> <li>- Euskaraz hitz egiteko "Foroak" sortu</li> </ul>
<b>KULTURA-JAIK:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Orokorki kultur egitaraua ondo</li> </ul>	<b>KULTURA-JAIK:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldeak koordinatu. Umeentzako ekintzak antolatzeke</li> <li>- Begiratu gehiago kalidadeari-- proposak izatea</li> <li>- Herriko taldeak residentziara joan... Ekintzak han antolatu</li> <li>- Betiko ekintzak indartu</li> <li>- Unibertsidadearekin harremana indartu</li> <li>- Ekintzak elizateetan udan</li> </ul>
<b>BIBLIOTEKA:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Haurtxotea, fenomeno</li> <li>- Liburu-fondoa eskertu</li> <li>- Zapatuak zabalik egotea, oso ondo</li> <li>- Biblioteka arteko mailegua oso ondo</li> </ul>	<b>BIBLIOTEKA:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Haur/gazte esparruko ume batzuen jarrera iraingarriak ekidin</li> <li>- Haur esparruko zaratak ekidin</li> <li>- CD/DVDak hondatuta</li> <li>- Domeketan zabaltzea</li> </ul>
<b>EUSKARA:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pirritx eta Porrotx</li> <li>- Euskararen eguna</li> <li>- Hika ikastaroa</li> <li>- Zinea euskaraz (Ibarraundi)</li> <li>- EBETE proiektua. Proiektua bera Elkarlanean egitea</li> <li>- Berbalaguna</li> </ul>	<b>EUSKARA:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Berbalaguna. Euskaldun berriak nola erakarri??</li> <li>- Berbalagunak Atxabaltarrekin elkartu?</li> <li>- Eskolaz kanpoko ekintzetan euskara sustatzea</li> <li>- Hurrek erabilera (Zuzena) bultzatzeko laguntza</li> <li>- Hezitzaileei (udalekuak/LEK) euskara egoki bideratzeko formazioa</li> <li>- Zinea euskaraz ikusteko eskolentzako laguntzak kendu dira</li> <li>- Ludoteka ibiltariak &gt; Ludoteka jolastekuetara</li> </ul>
	<b>HEZKUNTZA:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gazteriatik, ekintzak bideratu eta gurasoei zabaldu</li> </ul>



Aurrera begirako ekimenen artean lehentasunak ezartzeko orduan, berriz, hauek dira eskoriatzarrek lehenetsitakoak, urgentzia eta garrantziaren arabera:

garrantzia	+	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Musika eskolako gazte sortzaileak bultzatu</li> <li>- Gazte sortzaileen errolda bat egin</li> <li>- Gazte arloko ekintzak mantendu</li> <li>- Taldeen lokalak zentralizatu</li> <li>- Musika eskolaren lokala aldatu, ez ditu minimoak betetzen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antzokia - Euskara ikasteko diru laguntzak</li> <li>- Jai parte-hartzaileak izatea</li> <li>- Ekintza aproposak izatea, orijinalak</li> <li>- Taldeen arteko harremanak sendotu</li> <li>- Komunikazio kanalak sendotu</li> <li>- Euskararen sustapenean kirol arloko elkarteetan eragitea</li> <li>- Gazterian ekintza berri eta ezberdinak</li> </ul>
	,	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaztelekuko altzariak aldatu</li> <li>- Toponimia ikerketa, turismoarekin erlazionatu (bisita gidatuak)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gazte arloko diagnosis egitea</li> <li>- Ikuskizunen ordutegia aztertu, probatu ostiralean 20:00</li> <li>- Huhezin antolatzen diren ekintzak, herriari zabaltzeko aukerak aztertu</li> </ul>
-		urgentzia	+



#### 4.2.2. Gizarte ongizatea

Hauek dira sektore honetako aurrekontuak aztertzeraz joan ziren herritarrek udal teknikariek aurkeztutako aurrekontu proposamenaren aurrean eman zuten iritzia:

Ondo egindakoak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"><li>- Huzezi boluntariadoa (egoitza)</li><li>- Lana bilatzeko ikastaroak</li><li>- Autoestima tailerra</li><li>- Parte-hartze prozesua</li><li>- Nagusilan</li><li>- Praktiak egoitzan</li><li>- Aniztasun lan taldearekin jarraitu</li><li>- Integrazioa landu elkarlana bultzatuz</li><li>- Beharizanetarako diru laguntzak mantendu: eskola materiala, jantokia eta ludoteka zerbitzua</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Belaunaldien arteko irakaskuntza</li><li>- Adingabeentzako protokoloa</li><li>- Gazteekin jarrera matxistak landu</li><li>- Etxebizitza tutelatuen bideragarritasuna aztertu</li><li>- Osasun mahai parte-hartzaileak</li><li>- Ondo funtzionatzen duten inizatibak publizatu: Nagusilan...</li><li>- Kasu larrietan zer egin behar den : buzoneatu...</li><li>- Herriko sarrera (Intxaurtxuetako bukatu gabeko etxeak): umeentzako arriskuak ekidin.</li></ul>





Aurrera begirako ekimenen artean lehentasunak ezartzeko orduan, berriz, hauek dira eskoriatzarrek lehenetsitakoak, urgentzia eta garrantziaren arabera:

<b>+</b>	garrantzia	<ul style="list-style-type: none"> <li>- "Por los buenos tratos": sensibilizazio kanpaina (bulling, berdintasuna...).</li> <li>- Kontsumoaren ondorioak zeintzuk diren barneratzea: pintxo potea, lonjak, jai egitarauan "poteoa" jartzea...</li> <li>- Drogak: noizbehinka mezu zuzenak bidali "12 meses 12 causas" bluetooth</li> <li>- Gazteentzako autoestima tailerra</li> <li>- Gazteentzat aisialdi aukerak</li> <li>- Gazteentzako informazioa presio eta koakziorik gabe: ai laket... (drogen kontsumoak...)</li> <li>- Zaintzaileak zaindu ikastaroa</li> <li>- GLL-ak mantendu gutxitu gabe beharra dutenentzat</li> <li>- Boluntarioritza sustatu (jarraipena)</li> </ul>
<b>-</b>	urgentzia	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pisu tutelatuak (bideragarritasuna)</li> <li>- Osasun mahiak hedatu</li> <li>- Belaunaldien arteko harremanak sustatu</li> </ul>



#### 4.2.3. Turismoa, ingurumena

Hauek dira sektore honetako aurrekontuak aztertzeraz joan ziren herritarrek udal teknikariek aurkeztutako aurrekontu proposamenaren aurrean eman zuten iritzia:

Ondo egindakoak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"><li>- Hezkuntza: Museoan artatzen diren ikaslee taldeekin egiten den lana. Hainbat herritako ikasleak etortzen dira eta Eskoriatza ezagutzera emateko aukera ona da.</li><li>- Tupperren kanpaina</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Museoa eta Atxorrotzen arteko lotura. Museoko txoko bat Atxorrotzi eskaintzea.</li><li>- Eskoriatzan berreskuratzeko dagoen ondarea identifikatu eta horiekin plangintza bat egin.</li><li>- Ibilbide desberdinak egitea.</li><li>- Museoan dauden objektuen, elementuen... nondik norakoak weborriaren bitartez jakinarazi.</li><li>- Mugikortasun astea.</li><li>- Oinezkoentzako bideen egoera.</li></ul>





Aurrera begirako ekimenen artean lehentasunak ezartzeko orduan, berriz, hauek dira eskoriatzarrek lehenetsitakoak, urgentzia eta garrantziaren arabera:

+	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskoriatzako toponimia lantzea</li> <li>- Zakarrontzi gune aberriak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Datorren urtean Atxorrotzeko indusketen V. kanpaina egin.</li> <li>- Atxorrotz eta Ibarraundi Museoarekin informazio guztia jasotzen duen weborri bat egin. Dibulgaziorako beharrezkoa. Beharbada Ibarraundiko weborri bat prestatu eta honen barruan Aitzorrotz atala sartu.</li> <li>- Atxorrotzen garrantzi historikoa aprobetxatuz erdi aroko ferixa antolatu. Bertan egiteko proposatutako ekintzak: Tailerrak, esgrima, arkuen erabilera....</li> <li>- Herri mailan bisita gidatuak egitea.</li> <li>- Eskoriatzako ondarea berreskuratzeko plangintza bat egin.</li> <li>- Irisgarritasuna. Eskoriatzako zenbait puntutatik beste leku batzuetara joateko dagoen irisgarritasuna hobetu.</li> <li>- Tupperren kanpaina, bildukinik gabeko produktuen kanpaina eta ogiaren paperaren kanpaina.</li> </ul>	
-		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Auzo konposteko gune gehiago</li> </ul>	
-		urgentzia	+



#### 4.2.4. Kirola

Hauek dira sektore honetako aurrekontuak aztertzeraz joan ziren herritarrek udal teknikariek aurkeztutako aurrekontu proposamenaren aurrean eman zuten iritzia:

Ondo egindakoak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"><li>- Kirol elkarteak: pozik daude udalak eurekin duen jarrerarekin, laguntza handia eman die eta malgutasunez jokatu du.</li><li>- Herrian egiten diren kirol ekintzak: btt ibilaldia, gabez takarraran, patin gaba...</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Kiroldegiaren mantentze-lanak: Ciriloren falta asko nabaritzen da.</li><li>- Pilotalekuko gimnasioa konpondu behar da.</li><li>- Kiroldegiko harrera (pertsonek) arazo handia da.</li><li>- Herrian beste kirol ekintza batzuk egin: rokodromoa, atletismoa...</li><li>- Kirol elkarte handi eta bakar bat osatu hainbat sailekin (adibidez bezala Oñatikoa jartzen da). Taldean lan egin.</li><li>- Bilerara jende gutxi etorri da. Horrek erakusten du kirolarekiko zer nolako interesa dagoen Eskoriatzan.</li></ul>







Aurrera begirako ekimenen artean lehentasunak ezartzeko orduan, berriz, hauek dira eskoriatzarrek lehenetsitakoak, urgentzia eta garrantziaren arabera:

<b>+</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kirola kalera atera.</li> <li>- Frontoia eta kiroldegia lotu.</li> <li>- Kirolaren bitartez Eskoriatza bildu.</li> <li>- Unibertsitatea aprobetxatu.</li> <li>- Skate parkea eta goiko pilotalekua erabili.</li> <li>- Kirolerako diru laguntzak hobetu.</li> <li>- Obra txikiak egin: gimnasioa eta ariketa gela.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kirola kalera atera.</li> <li>- Frontoiko dutxak konpondu (ur hotza ateratzen da berehala).</li> <li>- Kirola + mugikortasuna: bizikleta, patineta, eskolara oinez... bultzatu.</li> <li>- Kiroldegiko gimnasioa hobetu.</li> <li>- Irudi aldaketa.</li> <li>- Kiroldegian bazkideak lortu.</li> <li>- Gurasoak inplikatu.</li> </ul>	
<b>-</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kiroldegia urte osoan zabaldu.</li> </ul>		
	-	urgentzia	+



## 5. Hirigintzako proiektuak eta herritarren iritzia

### 5.1. Parte-hartzea

Guztira 126 lagunek parte hartu dute inkesta/bozketa honetan, 32k museoko erakusketan botoa emanez eta 94k Internet bidez botoa emanez.

### 5.2. Herritarrek jarritako lehentasunak

Herritarrek udal webgunearen bidez edo Ibarraundi Museoko erakusketan botoa emanez adierazi dituzte beren lehentasunak udaleko Hirigintza Sailak 2013rako aurkeztutako 13 proiektuen artean.

Guztira 126 lagunek parte hartu dute inkesta/bozketa honetan, eta izandako emaitzan ikusten denez, herritarrek lehentasuna eman diote kale hori asfaltatzeari (883 puntu). Lehentasunen artean bigarren eta hirugarren, berriz, Santa Mariñen aparkalekuak egiteko proiektua eta herriko erdigunea soilik oinezkoentzat jartzeko lanak geratu dira, 781 eta 770 punturekin, hurrenez hurren.

Hasieta/Iniciu	<b>1. Kalea asfaltatzea</b>	
1-Kalea asfaltatzea/Asfaltar calle	<b>Asfaltar calle (Arana- Intxartxuetara)</b>	
2-Kalea peatonaltzatzea/ Peatonalitzar calle	<b>DESKRIBAPENA</b>	<b>DESCRIPCIÓN</b>
3-Santa Mariñe Aparkalekua/ Aparcamiento	Oñen helburua kale nagusiko zoru hobetzea da, Arana kaleko 2. zenbakitik Intxartxuetara auzoko 2. zenbakiraino (Aptzagarako bidegurutzea). Aldeez aurretik, egurgu zoru fresatu behar da, eta garo, plataforma sareak eta ibilgailu asfaltatu erabiltzea. Horien lan osagari bezala, beharrezkoa izango da bide horietan gaur egun dauden kubetarik zoru berrira egokitzea.	Las obras tienen como finalidad el mejorar el actual firme de la calle principal, desde el número 2 de Arana Kalea al nº de Intxartxuetara auzo (traviesa de acceso a Aptzaga Elizatea). Previamente será necesario fresar el actual firme, posteriormente y una vez sancada la plataforma se procederá al asfaltado. Como trabajos complementarios será preciso adecuar las arquetas existentes a lo largo del vial al nuevo firme.
4-Autobus geltokia / Parada de autobuses	<b>JUSTIFIKAZIOA</b>	<b>JUSTIFICACIÓN</b>
5-Gadaiadulua Ur hodia/tubería	<ul style="list-style-type: none"><li>• Zorua hondatute dago keke nagus osoan.</li><li>• Ibilgailuentzat zein alboetako espaloietatik ibiliko diren oinezkoentzako ekarriko duen hobekuntza.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• El estado de deterioro que presenta el firme en la actualidad a lo largo de toda la calle principal.</li><li>• La mejora que presentara para los vehículos, así como para los peatones que circulan en las aceras contiguas.</li></ul>
6-Depositueta gailuak/ Dispositivos en depósito	<b>Aurrekontua/Presupuesto: 96.000 €</b>	
7-San Pedro Urban zeta/ Urbanizar		
8-Oleazarako Turria/ Muro de Olezer		
9-Luis Ezeiza Hobekuntza/ Mejoras		
10-Kiruldegiko gimnasioa/ Gimnasio polideportive		
11-Udaletxe erreforma/ Reforma de ayuntamiento		
12-Aldiherantzak: Urbanizazio/ Urbanización		
13-Zaldibar antzokia/ Equipamiento		
Eman botoa! / Daros tu voto!		



Taula honetan ikus daitezke botoetara jarritako proiektuek lortutako puntuak eta lehentasunen artean izandako sailkapena.

Lehentasunen sailkapena	Proiektu proposamena	Jasotako puntuak
1	<a href="#">Kalea asfaltatzea</a>	883
2	<a href="#">Santa Mariñeko aparkalekuak</a>	781
3	<a href="#">Kalea oinezkoentzako bakarrik jartzea</a>	770
4	<a href="#">Zaldibar antzokirako ekipamendua</a>	606
5	<a href="#">Autobus geltokia aldatzea</a>	580
6	<a href="#">Olazarreko horma egonkortzea</a>	570
7	<a href="#">Zaldibar antzokiaren ingurua urbanizatzea</a>	473
8	<a href="#">Gaztañaduiko hodia</a>	432
9	<a href="#">Ur biltegietan gailuak jartzea</a>	427
10	<a href="#">Kiroldegiko gimnasioa</a>	426
11	<a href="#">San Pedro urbanizatzea (3. fasea)</a>	377
12	<a href="#">Luis Ezeizan hobekuntzak egitea</a>	335
13	<a href="#">Udaletxean hobekuntzak egitea</a>	66



## 6. Udal langileen ekarpenak

### 6.1. Parte-hartzea

Udaleko 21 langilek parte hartu dute. Alkateak testuingurua eta bileraren helburuak argitu ondoren, soilik udal langileek parte hartu zuten bileran.



### 6.2. Udal langileen iritziak eta ekarpenak

Hauak dira udal langileek udal funtzionamenduaren inguruan eman zituzten iritziak:

Ondo egindakoak	Hobetzekoak
<ul style="list-style-type: none"><li>- Asetasun inkesta</li><li>- Langileen arteko harremanak hobetzeko egindako ahalegina. Ondo!</li><li>- Ordu extren prozedura finkatzea ondo dago!</li><li>- Zinegotzien harremana hobetu da gure arloan.</li><li>- Jendeak bere iritzia emateko aukera izan du.</li><li>- Batzorde informatzaileetan giro ona dago!</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Barne komunikazioa</li><li>- Gauzak asko hasi dira eta gutxi bukatu.</li><li>- Gauzak esateko erak hobetu</li><li>- Plenoko erabakiak zehatzago</li><li>- Falta de información. La brigada se entera los ultimos de todo</li><li>- Batzorde – bilera gehiegi , beharbada gutxiago eginda nahikoa</li><li>- Langileen arteko harremanak hobetu: Lanean!!!</li><li>- Bilera gehiegi eta ez guztiz produktiboak</li></ul>



Ondo egindakoak	Hobetzekoak
	<ul style="list-style-type: none"><li>- Telefono bidezko arreta</li><li>- Arreglar baño de abajo en el ayuntamiento</li><li>- Escombrera: contenedor soterrado para bascular</li><li>- Batzorde informatzaileak: Zehatzagoak eta gaiak aldez aurretik landuta eraman</li><li>- Lan giroa.</li><li>- Kudeaketa batzordea: zertarako den definitu!</li><li>- Kultur ekintzak hobeto kordinatu: eszenatokia, silak... (gutxiago mugitu)</li><li>- Pertsonaleko erabakiak esan</li><li>- Politikoek beraien arloa bakarrik ezagutzen dute, ez dute ardurarik beste arloekiko. Ikuspegi zabalagoa izan beharko lukete</li><li>- Komunikazioa: Pertzonal batzordeko gaiak jakinaraztea</li><li>- Errazagoa da kritikatzeta ondo egindakoa txalotzea baino</li><li>- Inpresorak behar ditugu arreta zuzena egoki emateko</li><li>- Inposaketa larregi</li><li>- Batzuetan politikoak oso ganean dauden sentazioa; eta beste batzuetan, berriz, oso urruti, langilea libre samar. Oreka bilatu beharko litzateke.</li><li>- Los temas del cementerio estan sin solucionar: bajas, material, infraestructura..</li><li>- Falta de equipamiento en la brigada: Parkas, ropa...</li><li>- Conferencias en bilingüe</li><li>- Formazio plana prestatu eta martxan jarri</li><li>- Lan arriskuei aurrea hartzeko dauden baliabideak erabili</li></ul>





Aurrera begirako ideia , jarraibide eta ekarpen hauek partekatu dituzte udal langileek bileran:

## Ideiak, jarraibideak eta bestelako ekarpenak

- 2013ko aparteko ordainsaria 3tan banatzea.(Urtarrila-Ekaina-Abendua).
- Paga extra ordaindu eta gero ez kendu.
- Egiten dituen gauza gehiegi eta erdi txarto.
- Harritu gaitu: Balorazio orkorra ona izatea.
- Informar mejor a todo/as los trabajadores.
- Harritu gaitu: Jendea soldataz eta opor egunez kexatzea.Ekarpena: Enpresa pribatura joan daitezela.
- Risoterapia.
- Beharresko formakuntza.
- Brigada Udaletxearekin informatikoki konektatu.
- Lanpostuak aztertzea ergonomia aldetik.
- Lan arriskuen informazio gehiago.
- Kritikak egiterakoan formak gorde beharra.(Politikoa-langileak).( Langileak-Langileak).
- Aintzat hartzea: Afera hau azertu behar da arazoaren jatorria zein den jakitzeko eta hobetzeko. Oso importantea.
- Kalefazio sistema azertu, ahal bada bulego bakoitzak bere tenperatura erregulatzeko sistema jarri.
- Lan baldintzak hobetu.2012 baldintza berdinak.
- Planos actualizados de todos los servicios de Eskoriatza.
- Begiratu egindako ekintzak egokiak izan diren helburuak lortzeko.Hau da, helburuak lortu diren.
- Kudeaketa planak lan larregi.
- Crear Bolsa de Trabajo.



## 7. Balorazioa

Eskohitza2013 ekimena diseinatzerakoan etengabeko ebaluazioari bere lekua eskaini genion eta, zentzu horretan, sektorekako bilera guztien bukaeran balorazio partekatua egin dugu parte-hartzaileekin.

### 7.1 Sektorekako bileretako balorazioa

Balorazioa egiteko dianen teknika erabili genuen eta teknika horrekin bileran erabilitako metodologiaren, sortutako giroaren eta lortutako emaitzen inguruan parte-hartzaileek zuten iritzia jaso nahi izan genuen. Honatx emaitzak:

*Kultura, Euskara, Gazteria eta Hezkuntza*



*Kirola*



*Gizarte Ongizatea*



*Ingurumena eta Turismoa*





## 7.2 Udal langileen bilerako balorazioa

Udal langileek teknika bera erabili zuten balorazioa egiteko eta honela baloratu zituzten bileran erabilitako metodologia, sortutako giroa eta lortutako emaitzak:

